



AISIALDIKO EKINTZAK

2021eko UDA

ANTXITXIKETAN ERMUKO EUSKAL BEGIRALE TALDEA

AURKIBIDEA

1.	PROIEKTUAREN HELBURUA	3
2.	PROIEKTUAREN AZALPENA.....	4
2.1.	Programaketa	4
2.2	Ratioak.....	4
2.3	Ordutegia.....	4



1. PROIEKTUAREN HELBURUA

COVID-19ak eragindako osasun-krisi egoerak, urtero Ermuan burutzen diren Lehen Hezkuntzako ikasleentzako Udalekuak bertan behera uzteko erabakia hartzera behartu gaitu. Hala eta guztiz ere, jakin badakigu, Udalekuek garrantzia handia dutela Ermuko haur eta familientzat. Alde batetik, haurren sozializazio beharrak betetzen laguntzen dutelako, garapen etapa horietan berebiziko garrantzia duen aisialdi ludikoaren bitartez. Bestetik, euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko espazioa eskaintzen dute Udako ekintza hauek, beste modu batetan hizkuntzarekin harreman eskasa duten haurrengan hurbilduz. Hau gutxi balitz, familiaren kontziliazio lanak errazteko eta laguntzeko modua ere bada.

Honekin guztiarekin, aurkezten dugun proiektu honen helburu nagusiak ondorengoak dira:

- **Gure herriko umeen artean euskara sustatzen laguntzea.** Dugun egoera sozio linguistikoaz kontziente izanik, Antxitxiketan Aisialdi taldearen helburu nagusi gisa euskararen normalizazioa izan dugu proiektuaren sorreratik. Erronkatzat hartu izan dugu helburu hori urtero burutu ditugun ekintzen bidez, baina egungo egoerak ekarri dituen berezitasunak direla medio, inoiz baino zentzu gehiago duela ikusten dugu. Izan ere, konfinamenduak euskararen erabileran eragina izan du, umeek erabilera esparru eragingarrienak galdu dituzte: eskola eta eskolaz kanpoko ekintzak.
- **Sozializazioa eta jolasa.** Herriko haur eta gazteek, munduko beste herrialde askotako haurren antzera, denbora asko eman dute lagunekin harremandu gabe. Udako ekintzak burutzeko alternatibarik sortuko ez balitz, euskal aisialdirako aukerarik ez lukete edukiko eta epe luzean eragin zuzena izan dezake haurren ongizatean. Jolasa eta aisialdia beharrezkoak dira haur eta gazteen garapen osasuntsu eta orekatua eman dadin.
- **Kontziliazioa.** Ermuko hainbat familia gurekin harremanetan jarri dira seme-alabak zainduko dituen pertsona bila ari direlako. Udako ekintzak bertan behera lagaz gero, familia askok ez luke bere seme-alabak zaintzeko aukerarik izango. Gainera, behar honen ardatza ez litzateke zaintza hutsa izan beharko, baizik eta haurren aisialdi integrala eta giro afektiboa ahalbidetzea.

2. PROIEKTUAREN AZALPENA

Aurretik aipatutako guztia kontutan izanda, gure Udako ekintza proposamenaren oinarri nagusiak ondorengoak dira:

Orain arte antolatu ditugun udako zein neguko ekintza guztietan, haurrak zikloka banatuak izan dira eta Covid-19ak eragindako egoera berri honetarako banaketa berdina egitea gustatuko litzaiguke.

Zikloka banatzerakoan, adin talde bakoitzaren garapena hobeto lagundu dezaketen begiraleak bilatzeko ahalegina egiten dugu. Hau gutxi balitz, adin bakoitzak bizi duen garapen kognitibo fasean oinarritutako jarduera eta ekintzak prestatzen dira, haien beharretara ahalik eta modu egokienean erantzun ahal izateko.

Aurtengo egoera kontutan izanda, 25 haurrak 3 talde ezberdinetan banatuko ditugu 8ko taldeak sortuz, eta, hortaz, talde bakoitzean begirale bat egongo da.

2.1 Programaketa

Egoerari egokitutako programaketa diseinatu dugu; adin-tarte ezberdinei egokitua eta ekintza eta herri-txango anitzekin. Gure helburua umeek ahalik eta normaltasun gehienez disfrutatzea da; hala ere, kontziente gara garrantzitsuena segurtasun-neurriak mantentzea dela, beraz, ekintzak egoera eta legediak markatzen duenaren arabera moldatuko dira. Hau izango da egingo duguna egunez egun:



EKAINAREN 28tik UZTAILAREN 2ra (TXIKIAK)				
ASTELEHENA (9:00 - 13:30)	ASTEARTEA (9:00 - 17:00/18:00)	ASTEAZKENA (9:00 - 13:30)	OSTEGUNA (9:00 - 17:00/18:00)	OSTIRALA (9:00 - 13:30)
EZAGUTZA JOLASAK	IRTEERA* (Lekeitiora mendia + kobazuloa)	GURPIL EGUNA	IRTEERA* (Markinara parke abentura + gynkana)	UR JOLASAK ERMUAN

UZTAILAREN 5etik 9ra (ERTAINAK)				
ASTELEHENA (9:00 - 13:30)	ASTEARTEA (9:00 - 17:00/18:00)	ASTEAZKENA (9:00 - 13:30)	OSTEGUNA (9:00 - 17:00/18:00)	OSTIRALA (9:00 - 13:30)
EZAGUTZA JOLASAK	IRTEERA* (Kayak Sobronen)	GURPIL EGUNA	IRTEERA* (Parke abentura Sobronen)	UR JOLASAK ERMUAN

UZTAILAREN 12tik 16ra (NAGUSIAK)				
ASTELEHENA (9:00 - 13:30)	ASTEARTEA (9:00 - 17:00/18:00)	ASTEAZKENA (9:00 - 13:30)	OSTEGUNA (9:00 -17:00/18:00)	OSTIRALA (9:00 - 13:30)
EZAGUTZA JOLASAK	IRTEERA* (Paintball)	GURPIL EGUNA	IRTEERA* (Coastering, haitzetatik salto)	UR JOLASAK ERMUAN

2.2 Ratioak

Aurtengo egoera dela eta, udaletxearekin adostu dugu begirale bakoitzak gehienez 8-9 hurren ardura hartuko bere gain.

2.3 Ordutegia

- Noiz: Ekainaren 28tik uztailaren 16ra
- Egunak: Astelehenetik- Ostiralera
- Ordua: (9:00-13:30 Ermuan izanez gero)
(9:00-18:00 Ermutik kanpo izanez gero)

